




ZERUKO ARGIA

ILLEROKO ALDIZKINGI EDERGARRIDUNA

AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

III Urtea	1921'ko	Agorra	33 Zenbakia
-----------	---------	--------	-------------

¡Miguel Deuna gorde Euskal-erial



GURE Euskal-erriak artu ditu Miguel Aingeru'engandik beste erriak artu ez dituzten ontazteak; oso edefki esan dezakegu bada ldatzi Deunak diona: «*Non fecit taliter omni nationi*»

Eskef miña eman beaf dizkiogu bada Jaungoikoari. ! Aralar'ko Miguel, Deuna, aingeruen buru ta Agintaria gorde za-zu beti beti gure Euskal-erria! Gure gurasoak zuti-azi zuten Aralaf'ko mendi tontoŕean ezin esan diran izardiekin, Eliz iraunkor bat, etorkizun seme guztiak bertantxe Jaungoikoa ta Miguel Aingeruak adoratu zezaten.

Argatik (aundia da bai, Eskaldunen fedea Miguel Aingeruan) baño, gaur bertan, ilen tartetik burua altxatuko balute gure asabak, eztakit beren semetzaz ezagutuko lituzketen edo ez, oraingo Euskaldunak.

Ez dira orain Miguel Deunaren inguruan batutzen, ez dira bere «*Senidetza Deuna*» edo Kofradian batutzen, ta Aingeru Santuaren babesza ez da antziñako garaietakoa bezela.

Gauf ez degu Miguel Deuna efegutzen, gauf-ez da Miguel Deuna euskaldunen egiazko Zaindaria.

¿Zer egin ba Euskaldunak? Ez al degu nolabait goratuko gure gogo beratua?

Edef-edefa iduri zait ortarako, antziñako denbora aietatik jafia dagon *Senidetza Deuna* edo Kofradian saftzea.

Ezin esan omen da noizkoa dan, baño, uste omen dute batzuek 1084'tik

1115'raño Fermin Deunaren alkian egon zan Iruña'ko Gotzai Roda'taf Pedro onak jañitakoa zala.

Orduko eskrituetan ukatu ezitoken gauza da, diotenez, 1167 gafen urtean Paris'tar Pedro Jauna Iruñako Gotzai Alkira igotzean senide edo Kofrade asko arkitu zituala eta bera zuzentzeko lege oso egokiak egin zituala (1).

Legaria'ko Perez'tar Gotzaia, Iruñan zegoanian Senidetza deun onek BEROGEI MĪLA senide izan zitun irudian.

Antziñako efeino ontako kontu-liburuetan alde askotan garbi agiri da aldi artan asko zabaldu zala Senidetza Deun ori. Asuntzio ufengo igandean egiten zan Jai nagusia. Egun artan Mendietako Gizai, nagusia ta befeun gizon arma-dunak joan bear izaten zuten, ara zijoazenak begiratzeko ta nas-pilarik ez izateko, alako gizon sala igotzen zan ta (2).

Ta zer gertatu zan senidetza afein? Ondatu ta galdu zan guzia azkeneko eunurtekoaren erdi aldian, iya inor etzan sartzen eta ala ilik gelditu zan.

Prailean botatzeak ta Elizari ondasunak kentzeak oztu zitun efietako siñestasuna, ta Migel Deunaren debozioa.

Baño egia esateko azken aldi ontan befiz piztu da Miguel Deunaren jaiera ori eta egunetik egunera sail aundiagoak igotzen dira bere Elizara ta askok aditzera eman dute Senidetza Deun edo Kofradi ortan sartu naiez daudela.

Zertarako dan Senidetza Deuna

1.º) Bere Kofrade guziei Aita santuen Bulaz eta Gotzaien eskutizaz eldu zaizkien esker guzien jabe egiñazteko ta Etxe santu artako baselizean bizi ta ilaz egiten diran otoiñz eta eskeetan irabazbidea berai emateko.

2.º) Baseliz edo Santuario berean bizi ta ilen onerako elizkizunak egiñazteko.

3.º) Senideak, iltzeako diru pixkat izan dezaten bere etxeko ileteak edo funeralak artaz aterazitzeko.

Senidien eskubideak.

1.º) Iltzen darian aren sendi edo familikoai emango zaizkie eun eta ogei ta bost pezeta.

2.º) Senidetzak edo kofradiak Miguel Deunaren Elizan, meza ehezatu bat emaraziko du ilengatik.

3.º) Senide guziak irabazbidea izango dute Aita Santuak eta Gotzaiak Senidientzat eman dituzten animeko esker edo grazietan eta Baseliz Deunean egingo diran eliz-funtzio, nekabide ta otoiñz guzietan.

Ofa or Euskaldunak Aralarko Miguel Deuna goratzeko modu egokia. ¿Naia al dezute, Aingeru aundiak, gure Euskal-efia gordetzea?

Sartu bada Senidetza deun ortan ta ordun bera izango da gure nagusi, bera gure zaindaria, berak ederki zuzenduko du gure Euskal-efia.

KAPUTXINO BATEK

(1) Excelsis' tar Miguel Deunaren baselizako Senidetza legea

(2) Id.



Miguel Goiaingerua



IRUGARENDAREN IRUÑA'KO



BATZARE NAGUSIA

Irugafendar ta Euskaldun guztiek; ile onen 25'an Iruñara!



BA-dakizute gure Irugafendarak: Batzafé aundi bat egitera goaz. Aita Santuak eragin du artara. Gure Aita Frantzisko deunaren Aultalde onentzat on aundiak ekartzen dituzte onelako Batzaféak. Berroietan ikusten dira alderdi-bakoitzerako egokien diran bideak, Irugafen Ordenak on aundia egiteko efietan, etxetan, gazterietan gizonetzko edo emakumezkoetan. Aspaldian ikusten gendun onelako baten beafa; baño ofek berakin dituan eginkizun gogofak eta ondo egiteko zailtasunak atzerazten giñuzten.

Azkenean gure Aita Nagusiak lanari ekiteko esanik, asi giñan gure asmoa agertzen eta ofen befia ikasi dutenak eragin digute oraindik biziago eginkizun aundi oni indaf guziekin lotzeko.

Iruña'ko Gotzai edo Obispo jaunaren ondotik onetsi dute gure Batzafé au aurretik, Jaka, Huesca, Gazteiz, Kalaoña ta Segorbekoak. Eta Iruña'koak Batzafé onen Buru izango dala agindu digu ta beste batzuek ere beren laguntza eskeñi ta agindu digute. Ez takigu nola gure eskef ona erakutsi auei.

Batzafé ori zer izango da ba?

Batzafé ori, gure artean oraindano ikusi ez dan bezalako bat izango da. Iru egun osoaz iraungo du batzafé ofek. Baño ez uste izan gau ta egun batzaféan sarturik egon beaf dutela iru egunez. Baizik iru egunen buruan egingo dira batzafaldi asko. Baño ez duan biltzen dan bakoitzak nai duana itz egingo; baizik batek itz-egingo du, gai batez esatea on dena; aditzera emango du, gai artan zer eginkizun duan Irugafen Ordenak; zer bide artu lezazken gure efitan alako onak egiteko edo alako kalteak ez izateko ta azkenean an arkitzen diran guziei beren iritzia eskatuko diote, esan dezaten ea ondo deritzaioten alako erabakiak artzea gure efietarako. Eta norbaitek ezer esan beafik ba-du esan ondoren, arauko dira erabakiak.

Onela egingo da batzafaldi bakoitzetan.

Noiz izango da Batzafé ori?

Ile onen 22, 23, 24 ta 25'an. Lenengo egun artako afatsaldean asiera eman egingo zaio Batzafeari. Ufengo egunean bai goizean, baita ere afatsaldean, egingo dira Batzaf aldiak.

Esan diteke, ba, bi egunetan, izango dirala goien esan degun gixeko batzafaldiak.

Azkeneko egunean nola baita jai-eguna, egun ontan askoz ere lagun geiago bilduko da lenengo bi egunetan baño.

Egun ontan, goiz-goizetik Iruña'n izango diranak, ordu jakinean guziak batean Jauna artuko dute.

Gero izango dira beste elizkizun aundiak, bertako ta alde guzietatik etorriko diran Irugafendarentzat. Atsaldian Jaka'ko Gotzai Jaunak itz egin ondoan prozezio eder bat egingo da Iruñan, Irurogei estandarte gutxinaz agiriko dira, Gipuzkoa ta Napasa'tik Irugafen Orden guztiak etorriko dira Iruñara. **¡Añera ba Irugafendar ta Euskaldun guztiak! Batez ere azkeneko egunean iñe onen 25'an guztiak Iruña'ra.** Ori eskatzen dizue Jaungoikoak ta Prantzisko Santuak.

Edozein sartuko al da Batzare-Nagusi ortara?

Batzañ egunetako bigafen eta irugafen eguneko batzafaldietara ez, ez da edozein sartuko. Irugafen eguneko batzafaldi ta Elizkizunetara bai, naiko duan edozein sartzeko bidea emango da.

Bigafen eta irugafen eguneko batzafaldietara sartzeko, beaño du eraman Batzarkideentzat egin dan Ezaugafia. Ezaugafi au eman zaio naiko duan nornairi, Batzarkide egiten denean.

Bi egun oietako batzafaldietara etortzeko asmorik baldin balezute zuen erietako Apaiz Jaunen etxetan egin zaitezteke erietakoak eta Kaputxinoen etxea dan lekuetan beñiz, etxe oietan.

Iru motetako batzarkideak.

Lenengo iru egunetako Batzafaldietara joan naiko dezutenak Batzarkide egin beañ dezute; baño batzarkideak iru motetakoak izan ditezke. *Batzarkide Lagunak, Batzarkide Ongileak eta Batzarkide Omenazkoak.*

Batzarkide Lagunak izango dira Batzarkide egitean pezeta bat eman go dutenak. Auek Batzafaldi guzietara sartzeko eskubidea izango dute ofengatik eta baita Batzarkideen Ezaugafia ere, beste deus edo ezer eman gabe.

Batzarkide Ongileak deitzen dira Batzarkide egitean gutxienez bost pezeta ematen dituztenak. Auek Batzafaldi guzietara sartzeko ta Batzarkideen Ezaugafia artzeko eskubideaz gañera, Batzar-Nagusi onen liburua ere artzeko eskubidea izango dute besterik gabe, ori egingo dan egunean.

Batzarkide Omenazkoak izango dira Batzare ontarako lan-guñenbat zuzeratuko dutenak, Irugafen Ordenaren baten Zuzendari diranak eta Apaiz Jaunak.

Ta Irugarendar ez diranak?

Irugafen Ordenan sartu gabeak ere izan dezakete sañera Batzare-Nagusi ofetan Irugafendafen era bere berean; baño gogoan iduki naiz batzuek eta naiz besteak Batzarkideen Ezaugafia bulaf gañean agirian beañ dutela, batzafaldietara dijoazenean. Irugafen Ordenean dandenak batzafaldi auetan lenengo lekuetan jafiko dira baño.

Oar zaitezte gero ondo.

Batzarkide egin nai dezutenak, egiteko ematen dan dirua ematekoan jaso Batzarkideen Ezaugafia; au gabe ez gelditu lenengo iru egunetako Batzafaldietara sartzeko gogoaz dezutenak; au zeroiekin ekafi zatoztenean;

bestela ez dago saferarik, ortantxe bakarik ezagutuko bai da nof dan Batzar ontarako izena emana.

Ezaugarri onen bearik ez dezute azkeneko egunerako bakarik etofiko zeratenak.

Batzarkideak artuko dituztenak, izenak bereizian artu bea dizkiote Batzarkide Laguntzaleai, Batzarkide Ongile edo Omenazkoetatik.

Batzarkide baten izena ez artu, berari dagokion saria artu arte ta bitartean bere Ezaugarria eman ere ez. Onela guzia zuzen aterako da.

Batzar^o ontako mintzalariak

Irugafendafen Batzar^e-Nagusi onetan egingo diran Batzaraldietan irakufiko diran lanaz gañera izango dira itzaldi bikañak. Orain artean eskeñi zaizkigun mintzalariak pozturik gauzkate baño ez dira noski azkenekoak izango.

Euskeraz izango al da?

Euskaldun asko bilduko dala ba-giñeki, sail bat edefa bai euskeraz izango litzeke baño, euskaldunentzat ufuti samar egiten bai da euskaldun asko biltzeko astegun aietan, argatik zer edo zer izan liteke euskeraz, baño geientsua erderaz izan bearko du. Ala ere, naiko gendukena, euskaldun asko biltzen ba-zerate izango da bai euskaldunentzat berex batzaraldien bat baño geiago.

Lendabiziko egunetan ez ba-da ere azkeneko egunerako euskaldun asko ta asko zai degulako, orduko bai gertutzen degula batzaraldi bat bikaña euskera uts-utsez.

Batzar^o au dala bide beste bi asmo bikain

Batzar-Nagusi onen antolatzaileak beste bi asmo bikañak baderabilzkite Batzar-Nagusi onen egunetarako ta ofi gorapide aundiagoa emango diotenak betetzen ba-dira. Nai litzeke gauza Frantziskafen ikusbide bat aundia jafi, aufena. Gure Aita Asis'tar Frantzisko'ren kuadro edo irudi edef baliotsuak nai lireke bildu ikusgai egun oietarako jartzeko. Bereala baita beste edozein irudi Frantziskaia izan ezkeroz, Antonio deunarena edo beste edozein Santu edo deun Frantziskafen batena baldin ba-da.

Auetatik geiena dakartzenari, onak izan ezkeroz, sari edef-edefa eman-go zaio dirutan, eta beste sari bat Kuadririk edefena dakafenari

Beste asmoa da gure itzasoz beste aldeko Misioetako gauzak ikusgari jartzekoa,

Batzar^earen Antolatzaileak



IRU AGUR MARIAK

EMAKUME fededun bategandik aditutako beste gertaera polit bat:

«Gizon bat bazan, bere egitekotan oso zintzoa: Nik asko maite nion eta efi guziak ere bai. Baño ezagutzen nuan batere sinismen edo federik etzuala.

Asi nintzan iru Agur Mariak bere animaren alde esaten. Urte askoz aritu nintzan otoitz ontan afen alde, egunik ere utzi gabe.

Berak, toki guzietan, egun onak ematen zizkidan; nik befiz, beti bere animaren zerurazioaz itzegiten nion.

Olako batean, bere alabak, jakindurik aitaren salbaziorako nuan asmo bizia, esan zidan, jafaitzeko afen ariketa afi, aita beafa aundia zuala ta.

Eman nion bein gizon afi, «Iru Agurmariaren bidez Zerua idikia» deritzan ofitxoa.

Nik eztakit irakufi ote zuanik; nik beñepen, enion lan jainkozko ofi utzi.

Gaizkitu zan gizajoa: ¿Ili ote da? ¿eta nola? ¡Ai, nere Jauna! Egunero ko «Iru Agurmariak» gañera, asi nintzayon Zeruko Amari Iru Agurmarien bederatziurfen bat, lagun gaixoaren aitormena edo konfesioa irixteko.

Asi ta irugafen egunean, esaten ez didate bada gizonak aitormen eder bat egin eta Jauna artu zuala? ¡Ura nere poza!


Enintzan oraindik beñere etxe artan izandu; baño, nola bere seme-alabak baizekiten zenbat nai nuan nik aien aitaren zeruratzea, joan egin nintzan.

Seme-alabak pozik aitu ninduten. Gaixoak ere aurpegia alaia jafi zidan. Esan nien gazteai Karmengo kutun edo eskapularioa aitari jartzeko.

Aitormena entzun zion apez berak jafi zion, eta oso ongi il zan.

Nik befiz, bukatu nuen bederatziurfen ura, Andre Mariari eskefak ematen nizkiola.» Azkeneko urte auetako gertaera da.

A. I. M. A.





rantzazuko

Ama Nekutsarez



(Donosti'ar J. A. Ak. asmatua)

Asiuro (Biotzetik.)

Al o - ña - pe - ko aŕ-ka iz aŕ - te an-E - loŕ - a -

ran tzan zau - den A - ma Eus-kaŕ-du - nok gaur zu laz - tan

Be - ra E - to - fi ge - ra zu - re ga - na Zu - re on -

do - an mai-te-kor - de gu Gu - re Jaun- goi - ko Je - sus o-

oñezkoa

na Zu - re bi - tañ - tez ge-ro i-ris - te - ko gu-re be-

gald. ti - ko lo - ri o - na— Zu - re on - na.

1.^a *2.^a*

gald.

I


Aloñapeko arkaitz artean
 Elof arantzan zauden Ama,
 Euskaldunak gaur zu laztantzera
 Etofi gera zure gana;
 Zure ondoan maitekor degu
 Gure Jaungoiko Jesus ona,
 Zure bitartez gero iristeko
 Gure betiko zoriona.



II

Ludi ontako arantza beltzez
 Gure biotzak zulaturik
 Zure laguntza eskatzen dute
 Negaf negafez gaur urturik:
 Gure bafengo samintasuna
 Gozatu zazu ene ama,
 Zapaldu itzazu gure arantzak
 Ta emaguzu osasuna.

○ ¡ ALARGUNA! ○



Atozkit, semetxu, atoz amaxoren
magalera.
Zu nire zoruna, ni poz-eztia
zu bai-zera.

Aizea txistuka: leioak aztintzen
kazkabafa:
¡Otoitz nire biotza... etxean izanik
su ta gaña!

Elur ta ilunpeak estali du ibafa
ta mendia:
nire biotza da elufetan dagon
ilobia.

¡Auxe bai gau ituna, nire biotz-
irudia! [gauen]
¡Egunik ez netzat..! Gudan il'zan nire
eguzkia

¡Guda! Ez dakizu, ene seme zer dan
gudatea.
Ez dakizu zer dan aitatxorik gabe
gelditzea.

Argatik dagizu-paf ta poz-ifintzi
jolasean.
Negafez, gaxo ofek ezautuko dezu
aunditzean.

Seme, ogizuke, ba, jolas, ifintzi,
bitartean: [paf]
egizuke orain zure amaxoren
magalean.

Agian jolasok senda lezateke
nire miña.
Atoz, egizu-paf, ifintzi ta jolas
ba, zorgina.

Atozkit nire gau alegeko izaftxo
pozgafia:
Aski da alaitzeko, noski, zu-begien
dirdaria.

Atoz, maite ori, estutu nazazu
zure eskuaz:
piztu iya itzali dan nire gañ au zure
biotz-suaz.

Bizitza zugandik iges-dijoakit
beregantuz,
egoak azita, txoriak dugin lez,
dagi goruntz.

Zuk, seme, lotuta eutsiko diozu
bai, lufean,
ta agian kabia egingo du zure
biotzean.

Bera jun-ezkeroz, zu alargunaren
poz ta alaia,
maite, zu bakafik, nire naigabean
eztigaya.

Atoz, atoz, maite... Onela...orain pa
amaxori...
Sutan bufnia lez, jafi zait biotza
goñ-gofi.

¡Au nire zuruna! Euzkia ageri da
ozkarbian.
Baña ¡ai! ez da urtu oraindik elufa
ilobian.

Baña urtuko da: zure begi beltzen
argi-izpiak
laister beren berroz eruazi ere bai
an liliak.

Orduan guzia, seme, izango da au-
poz ta alaia [txe]
Gau itunarik ez eta udabefiko
lore usaia.

Bañan, ene maite, ¿zergatik dagizu
orain negaf?
Amatxokin zaude... negafik ez egin..
egizu-par.

* * *

Baña aurtxo gaxoak negaf amatxo-
ren magalean,
ta negafez loak artu zuan bere
egal-pean.

Ta lufera eldu zanean uda alai
ta gozoa,
kabia utsa zegon... eta umezurtza
auf, gaxoa. [zan]

Jauregi'tar Koldobika

Bizente Doatsua; Apaizurena ta Lekukoa

BIZENTE Doatsua, Apaizurena ta Lekukoa Hues'kan jaio zan, biga-
fen gizaldiaren azken aldian. Kristau zintzoen eta argidotafen semea
izan zan, eta txiki-txikitatik oso ondo azia ta ikasia, ta berez befiz
oso ona, argia, garbia, jaieratsua, Jesukristo'ganako ta Eliz Ama
Doatsua'ganako zaletasun aundikoa.

Gazte-gaztea zala, Zaragoza'ra joan zan, eta uri ontako Gotzaiak, Ba-
lerio Doatsuak, ezagutu zuanean, oso pozturik, Apaizuren (Diakono) egin
zuan, eta bere ordezeko itzaldilari autu zuan; berak, ordea, bere zartzaroa-
gatik eta mingaiñ motela'gatik, itzaldiak egiteko eñaztasunik etzaukalako.

Bizente Doatsuak, ordea, bere burua apaizuren eta Gotzaia'ren ordezeko
itzaldilari egiñia ikustean, bere eginkizun befi arduratsuok zintzo-zintzo be-
terik, eta bere itzaldi bero, argi ta iltun edefakin, Jaunak onetsirik, siñisga-
beko asko irabazi zituan Jesukristorentzat, eta baita ere kristau txar asko
ondu ta epel asko berotu.

Ofegatik, jainko gezufezkoen agurtzale nagusi batzuk, oso asafeturik,
Bizente ta Balerio Doatsuak Daziano Agintari biotz gogofari salutu zizkio-
ten. Eta onek, Eñomatafen Agintari Diokleziano biotz gogofaren **erasoaldi**
guzierakoan, agindu zuan, gure Doatsuak Balentzia'ra, bere aufera, era-
mateko, bidealdi guzian oñez, kate astunez loturik, gose-egafiz, eta beste
era askotara gogor mindurik, alako bidealdian oso auldurik eta ikaraturik
bere aufera elduko ziralakoan, eta antxe Jesukristo utzi ta agintepoko jain-
ko gezufezkoak agurtzera jafiko ziralakoan.

Baña gure Doatsuak bidealdi luze ta neketsu artan gofiak ikusiafen,
oso indartsu, alai ta bizkor eldu ziran Agintariaren aufera, ta an biotzaun-
ditasun aundiaz aitortu zuten Jesukristo gure Jauna, Jaungoiko ta Gizon
egiazkoa, zeru ta luñen Egilea, gizaldiaren Eroslea ta Zeruratzalea, bizien

eta ileen Epailea, onai Zeruan betiko zoriona, ta txafai inpernuan betiko zoritxafa emango diena.

Agintariak orduan, alako gizon afigafi ta biotz aundikoak, txafean baño onean obeto irabaziko zitualakoan, Doatsuoi oso poliki ta eztitu itz eginda, bizitza ontako ta besteko zorientasun guziak eskeñi zizkien, Jesukristo utsi ta agintepeko jainkoak agurtzeafen.

Bizente Doatsuak orduan, Balerio Doatsuaren aginduz eta bien izenean itzaldi eder-eder egin zuan Agintariaren afean, Jesukristo gure Jaunaren Jainkotasuna ta guzialtasuna, alde batetik, eta agintepeko jainko gezurfezkoen ezereztasuna, bestetik, oso argiro azalduaz, eta, gañera, Doatsu bien zorientasun guzia Jesukristo'gatik bizia ematean zegoala aitortuaz.

Agintariak orduan agindu zuan, su ta gar egiñik, Balerio erbesteratze-ko, ta Bizente befiz asmatu al guziko neke-oñazeen artean artzeko.

Gure Doatsuak miñ aundia artu zuten elkargandik bizirik banatu zituztenean, biok oso asko maite ziralako, ta bat egiñik zeudelako, ta beren go go guzia Jesukristo'gatik erabatera ta ainbat laistefen bizia ematea zalako.

Boferoak, ordea, Agintariaren agindu au oso gogorkeri aundiaz bete zuten; eta Balerio Doatsua erbesteratu ondorean, Bizente Doatsua zigortu zuten, eta zaldia deitutako miñ-emangai ikaragafian jafi zuten, eta esku-oñetatik sokakin tiratu ta bere ezur guziak lokatu zizkioten, eta burnizko kako zofotzakin aragi guzia ufatu ta bizkafe ezur ta saietsak agirian utzi zizkioten. Eta Doatsu onek, alako neke-oñaze ikaragafian artean, oso pozik eta alai Jesukristo goratzen zuan, eta boferoai befiz iripahez esaten zien: Oñaze aundiagoak asmatu.


Agintariak orduan agindu zuan, zauriak otzitu ta gero befitu ezkeru, miñ geliago ematen zitela, ta Bizente'ri zauriak oztutzen uzteko, ta gero befitutzeko. Agindu au ere gogofkeri aundiaz bete zuten; eta gure Doatsu oni, oraingo aldian esteak ere agirian utzi zizkioten. Baña Doatsu onek, oraingo aldian ere, oso pozik eta alai Jesukristo goratu, ta boferoai iripahez esaten zien: Oraindik ere oñaze aundiagoak asmatu.

Agintariak ezagutu zuan, ordea, Bizente Doatsuak Jaungoikoaren laguntza berezia euki beaf zuala, ta alegin guziak egiñafen, etzuela au garaituko. Baña, ala ere, bere burua ez mañurtzeafen, esan zion Doatsuari: Bizia barkatuko dizut, Liburu Doatsuak sutara botatzeko ematen badizkidazu. Doatsuak, ordea, erantzun zion Agintariari: Liburu Doatsuak sutara botatzea baño egokiago izango da noski, neu sutara botatzea. Ta oraintxe jafiñean jafi beaf zaitut, agintepeko jainko gezurfezko eragabeko oiek utzi, ta Jesukristo Jaungoiko egiazkotzat ezagutu ta agurtzen ezpadezu, egunen batean inpernuko betiko zugafetara botako zautela.

(Jafaituko diogu)

Aita Eskoriatza





OSKERIAK dakazkiguken kalteai buruz idazten edo itz-egiten ez naiz beñere aspertzen. Gauz beñ-berak askotan esan beaia degula uste det.

Ur-ñanña batek lenengoan eztu aña zulatzen; eta, lenengoan zulatu eztualakoan, aspertuta, etsita, gelditu ba'litz, eluke egundaño aña zulatuko.

Baño ur-ñanñak, aña jotzen, urte bete batean, bi urtean, edo ogei urtean irauten ba du, aña bai-du zulatuko.

Etzaitzte, bada, afitu, *Izaskun*'ek esaten dizkitzuten gauzak, askotan berdintsuak diralako; ni enatofkizute, bakoitzean gauza beñiak esatera, Euskaldunen moskoferia sendatzera baño.

Afiak baño gogofago diran buruak zulatzerata natofen, ur-ñanña naiz ni.

Ordikeriak dakazdigun kalteak ondo ba'lekizkrite Euskaldunak, edariai gofoto aundiagoa liekete noski, baita ostatuati edo *trabenai* ere. Baño Euskaldunak, gai ontaz oso gutxi idatzi izan degu; gai ontaz eña itxu dago; ez dizkiogu oraindik begiak argitu; ofegatik ezta afitzekoa, edateari bildur ez izatea.

Ordiak edo moskofak, bere buruari bakafik gaitz egingo ba'lio, gaitz erdia izango litzake. Bere neufigabetasunak bein-edo-bein ordaindu beaño litzake, ta kiño.

Baño eztio bere buruari bakafik gaitz egiten; gaitz-egiten die bere ki-deko guztiai, ta bere ondorengo guztiai; gaitz-egiten die bere emazteari. ta bere semeai.

Ume efukigafiak, moskofaren umeak! Oñutsik, soñekoak ufatuta, zikin-keriak aulduak, goseak ia ilak; amak beñiz, ezin lagundu, aita moskofak etxera ezer ekartzen ez dualako.

Munduan gurasorik ez ba-lukete baño gaizkigo bizi izaten dira moskofaren umeak; gurasorik ez ba-lukete, norbaitek bildu ta aziko litzuke; baño gurasoak bai-dituztelakoan, gurasorik gabe ta laguntzaferik gabe arkitzen dira.

Ez al dituzute ikusi, onelako umeak, moskofen baten etxean? Eta ez al zerate oietaz efukitu?


Onelako ikusgafi negargafiak gutxitzeko, egiñalak egin. Zuen meense aufean, zuen anai eta aideen aufean ordikeriaren eta ordien gaitzak eta zori-xfak azaldu, odikeriari gofoto artu dezaio ten.

Ordikeriaren gaitzak, ordien etxeko zoritxfak, eta ordiaren emaztearen eta umeen biziera efukigafia gogoan artu dituana, ez-ta ain efex ordikeriaren atzapafetan eroriko.

Jesukristo mundura etofi baño lenago bizi izan zan jakintsu batek, *Epikteto* izena zuanak, esaten zuana beti gogoan euki beañ zendukete. Ia-

kintsu ofek esaten zuan *mats-ondoak iru laida dauzkala*, edo *mats-ondotik iru adartxo ateratzen dirala*: *lenengo adartxoa*, *atsegiñarena da*; *bigarena*, *ordikeriarena*; *iru arena*, *gaizkiñarena* edo *gaiztakeriarena*.

ARANTZALEAK



Ofek esan nai du, ardoa edaten asita, lenengo atsegiña izaten degula. Gure bafua ta burua argitu egiten zaizkigula iruditzen zaigu. Ofelako atsegiñaz, edaten aritzen gera, baso baten ondorean bestea, ta uste gabeen burua txoratzen zaigu eta moskortzen gera. Eta moskoferia da, edozein gaiztakerietarako biderik zuzenena.

Gizonezkoak onelako gauzai ajola gutxi izaten diete; baño zuek, ema-

kumezkoak gogoan artu itzazute, ta semeak baldin ba-dituzute, edo noiz-pait izaten ba-dituzute, esaiezute safi *Epikteto* jakintsuak esaten zuan ori. Euskal-maisuak ere, umeai maiz esan dizaietela. Euskaldun guztiak, alderdi guztietan irakufi ditzatela *Epikteto*'ren itz ororigafi oiek: *Mats-ondoak iru laida* (1) *dauzka*. *Lenengoa*, *atsegiñarena*. *Bigařena*, *ordikeriarena*. *Irugaren*, *gaizkiñarena*.

IZASKUN'ek O. M. C.

Eukaristiaren lekuko edo martiri bat

Protestantien gezufezko erligioaren lenbiziko egunetan gertatutakoa da. Efi katoliko batean, prozesioa 7an. Prozesio afk befiz, protestante zar baten etxearen ondoan zan oian batetik barna joan bear zuan.

Gizon gaizto ura, zugaitz (arbolen) artean gorderik, antxe zegoan, suizkiu (eskopeta) kargatu ta, Jauna Sakramentua zeramaren apazaren zai.

Lagun fededun bizkoř bat, suizkimiřa Jaunaruntz itzulirik ikustean, jarzen da apezaren eta lagun gaizto ařen erdian, eta orduntxe bunbada aditzen da, eta gizon doatsu ura, Jaunraengatik bizia ia galdurik antxe erortzen da apezaren oñetan.

Apezak, batere zalantz edo durik gabe, eta eskuak dar-dar diola, ateratzen du bere tokitik Ogi Satudua, eta esaten dio: Ene seme zorionekoa, oraintxe Jaunaren Korputza zure baitan artzeko bezelakoa zaude» Eta Eukaristiaren lekuko edo martio ofek, Jesus biotzean duala ematen du azkene ko asnasa,

Noiz Jaungoikoagana biurtu bear ote degu?

Lur-ikara zer dan badakizute noski; nere irakurle maiteak. Inoiz entzun dezute lur-ikara izan dala, ta efi osoak galdu dirala: Orañ zortziren bat ilebete, Lotazilaren-Abenduaren 16 an izpeřingiyak zekarten Chinan lur-ikara aundi bat izan zala. China ufuti emendik gelditzen dalako, eta ango beřiyak jakiteko bide nekezak diralako, orañ arte gauz garbirik ezin jakin izan degu; bařa azkenian ere etofi zaizkigu bertako izpeřingi batzuek, eta adierazi digute an gertatu zana.

(1) *Laida* itza ikusita, onuzkero asarretu zera, irakurle, ori Euskera eztala esanaz. Etzaitez, bada, asarretu. Ara zer dan *laida*. Landereari ernetzen zaizkion adar gazte ta berriak dira *laidak*. Ez-ta itz berria, zarra baizik, Erderaz *retoño*, *brote*, deitzen diete. Euskeraz, itz egokiagorik nik ez-takit. Zuk baldin ba-dařizu, esadazu, arren.

Negargafiya ziftez. Chinako bi probintzi aundi, Kansu ta Chensi, izan dira lur-ikaraz zigortuak. eta nolako zigorkada! Jaungoiko maitea zifistu ere bai al liteke? **Eun da larogei mila** noti-persona il dira, eta **miloi bat** ondorengo goseaz. Beñere olakorik entzun al dezute?

Orañ amairu urte Mesina'ko lur-ikaraz eun mila notin il ziran; eta Indiyetan 1893 gafen urtian eun da befogei ta amar mila; baño orañguan Chinan **miloi bat eta eun da larogei mila**. Euskal efiya oso osorik ondatu izan balitz bezela! Jaungoikoak efuki gaitzala.

Eta ala ere mundu ontan gure zorian guziya arkitu nai! Noiz Jaungoikoagana biurtu bea? ote degu?

ILĀRAMENDI'TAR ERĀMON'EN

Jostirudi Pařagafiak

Bost jostirudi zein baño zein pařagafi eta atsegiñakoak etofi zaizkigu. Gipuzkoako euskera eřax-eřaxean egiñak daude. Donosti aldean erabiltzen dan euskera eřitafean daude, ango s, z'ren ordezeko guziakin. On izango litzeke efiak bestela esango ba-du ere bere z danean izki ofekin jartzea.

Oraindaño euskal-jostirudi asmatzaleak geientsuan baseřitafa moteltzu edo kirten samařa bezala derakusgute beren jostirudietan eta ortik ateratzen dute pařagafi-bidea.

Baño İlāřamendi jaunak aña gatz eta esanera eřaza duten jaunak beste biderik joko baziñuteke, euskaldunari bařuagotik pařa eragiñaziko ziñiteke askotan. Nola?

Euskaldunen artera datozen amaika kirtenen lepotik, euskaldunak egi-ten duten bezala, pařa eragiñaziz. İlāřamendi jaunaren jostirudi auek dira *Tomash İlāshiyo Dónostiyan*, egintza batean. *Artzai Pillipe*, bi egintze-tan. *Testimonio falsoa*, egintza batean, *Bateko urria*, egintza batean. *Josepe Albaiterua*, egintza batean.

« ARANTZAZU »

Arantzatzu'ko AA. Frantziskafak lengo ilabetean argitaratu dute aldiz-kingi edef «Arantzazu» izena duana.

İlerokoa izango da.

Baditu ilean ogeita amalau ofialde.

Erderaz geientsua, baño euskerazko sailtxo batzuekin.

Edergafiak ere ba-ditu.

Arantzatzu'ko Andre Maria'ren eta Antonio Deunaren jaiera zabaltzeko sortua da.

Zorionak demazkiegu gure Anai oiei, ta beren aldizkingiari bizitza lu-zea nai dio *Zeruko Argia*'k